

## EUSKARAREN KALE-ERABILERA. TXILLARDEGIREN EREDU MATEMATIKOA

Xabier Isasi eta Arantxa Iriarte

*EHUko irakaslea eta ikaslea*


Dagoeneko EKBren euskararen kale-erabileraren hirugarren neurketaldia buruturik, bildutako datuen deskribapen hutsaletik haruntzago joateko garaia iritsi zaigu. Ez da bakarrik azken hamar urte hauetan pilatutako datu andanak dakarkigun deskribapen zorrotza, eta ez da gutxi, batez ere, garatutako metodologiak eta lortutako formalizazio mailak ekarpenaren muina osotzen dute. Alderdi horretan, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi, irakaslearen irakaspenak soziolinguistikaren ildo berria ireki digute. Hari bihoakio bada, gure esker ona berarengandik eta berari ikasi ahal izan diogunarengatik.

Azken hamar urte hauetan enpirikoki behatutakoari forma emateko garaia iritsi zaigula esaten genuen. Beste era batera, TXILLARDEGIREN EREDU MATEMATIKOA azaldu eta garatu nahi genuke.

### TXILLARDEGIREN EREDU MATEMATIKOA

Jose Luis Alvarez Enparantza irakasleak hizkuntza gutxiagotuaren erabileraren auzia ebazteko 1984. urtez geroztik eredu matematiko zehatza garatu izan du. Eredu matematiko hori, funtsean, prozesu estokastikoaren deskribapenean datza. Hizkuntza gutxiagotuaren erabilera maila hiru osagaien funtzio zuzena izango litzateke, elebidunen proportzioa ( $e_x$ ), mintzakide taldearen tamaina edo solaskide kopurua erabilera askean ( $w_i$ ) eta hizkuntza gutxiagotuarekiko leialtasuna ( $m_B$ ). Horrela, erabilera maila kalkulatzeko formula ondorengoa izango litzateke:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$



Hizkuntza gutxiagotuaren erabilera maila

Ikusten denez, mintzakide kopurua bikotetik laukoteraino mugatu dugu. Izan ere, elkar hizketa askea solaskide gehiagoren artean gertatzea oso probabilitate txikiko jazoera baita. Hau da, bost edo hitzun gehiago biltzen direnean elkar hizketa laukote edo azpitalde txikiagotan banatzen dela suposatzen dugu. Nola nahi ere,  $w_i$  pisu estatistikoak dira, ponderazioak alegia.

Horiek horrela, eredu honetan ondorengoak bete beharrekoak dira nahi eta nahi ez:

$$w_2 + w_3 + w_4 = 1$$

$$0 \leq e_x \leq 1$$

$$0 \leq m_B \leq 1$$

eta ondorioz erabilera maila ere:  $0 \leq P_B \leq 1$

EKBek 1993. eta 1997. neurkataldian solaskide kopurua behatu zuen. Hau da, behatutako elkar hizketak bikoteetan, hirukoteetan, laukoteetan, boskoteetan edo talde handiagoetan gertatzen zirenen arabera, bikote, hirukote, laukote, boskote... kopuruak zenbatu eta haien artean zeintzuk egiten zuten euskaraz zehaztu ere.

Bi neurkataldi horietan solaskide kopuruaz,  $w_i$  pisu estatistikoak deituta, jasotako datuetatik abiatuz, laukoteetara mugatu dugu hitzun taldeen tamainaren eragina eta  $w_2$ ,  $w_3$  eta  $w_4$  pisu estatistikoak balio finkotzat jo. Horrela, batenaz beste bikote, hiruko eta laukoteen pisuak ondorengoak finkatu ditugu:

$$w_2 = 0.5488$$

$$w_3 = 0.2862$$

$$w_4 = 0.1650$$

Gure ustetan, balio horiek -beti kale-erabileraz ari garela gogoan izanda-, aldagaitzak dira. Hori horrela dela ondorioztatzeko 1993 eta 1997ko neurkataldien datuez baliatu gara, urte eta udalerrri desberdinetan behatutako datuak erkatuz. Horrek, jakina, ez du esan nahi boskote, seikote edo hitzun talde handiagokoetan hitz egiten ez denik, orokorrean tamaina horretako hitzun talde horien eragin estatistikoa hutsaren hurrena dela baizik. Azken finean, kaleko hizkuntzaren erabilera neurtzerakoan laukotetik gorako taldeen ekarpena ez da esanguratsua. Bide batez, esan dezagun, balio horiek aldagaitzat hartzeak nahiko errazten digu kalkulu prozedura eta, aurrerantzean erabileraren neurketa prozesu astuna arindu ere.

Zehazkizunak zehazkizun, eredu matematikoaren formalizaziorako ezarpenak baldintzak eta beharrezko definizioak argitu behar ditugu.

**«B hizkuntzako hitzun elebakar multzo esanguratsurik ez dago, hitzun guztiak A hizkuntzaren jabe diren bitartean, haien arteko batzuk B hizkuntza jakin eta erabiltzeko moduan daude. Hau da, A hitzun elebakarrak eta A/B edo B/A motako elebidunak, besterik ez»**

«Hizkuntza gutxiagotuaren erabilera maila elebidunen proportzioa baino txikiagoa da beti. Kasurik onenean, erabilera erabateko leialtasunaz eta bikoteka gauzatzen denean, hizkuntza gutxiagotuaren goren mailako erabilera tasa elebidunen proportzioaren berredura besterik ez litzateke izango»

## KALE-ERABILERA

Hizkuntza gutxiagotuaren erabilera hitz egiterakoan, inplizitoki hizkuntzen arteko ukipen egoera jakina aipatzen dugu. Egoera horretan, guk definitutako horretan, lurralde jakineko hitzun guztiak A hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko gai izanik, haien arteko batzuk B hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko gai dira. Azken hauek elebidunak dira, gure kasuan euskaldunak. Hizkuntza egoera horretan bada, kale-erabilera hitzunek beren kasa, inolako eraginik jasan gabe, darabilten hizkuntzari esaten diogu. Esango genuke kale-erabilera komunikazio askeari dagokiola.

Hizkuntzaren erabilera horrela ulerturik zorizko gertaera edo jazoera estokastikoa da. Hots, behatzaileen ikuspegitik hitzunek hizkuntza bat edo bestea erabiltzea probabilitateen legepeko gertaera da. Edozelan ere, hizkuntza baten edo bestearen erabilera, diogun erabilera, elkarren artean ANTIMETRIKOAK dira, A erabiliz gero B ezin erabili eta aitzitik, B erabiltzekotan A ezin erabili daiteke. Beste era batera honela adieraziko genuke:

$$P_A + P_B = 1$$

Komunikazio eza, testuinguru zehatz honetan, hitzunen artean ezin gerta daiteke beraz.

Txillardegik garatutako eredu matematikotik alderdi bat besterik ez dugu hartu. Hizkuntzen arteko ukipen egoerari aplikatuko diogu. Egoera horretan, esan dugunez, B hizkuntzako hitzun elebakar multzo esanguratsurik ez dago, hitzun guztiak A hizkuntzaren jabe diren bitartean, haien arteko batzuk B hizkuntza jakin eta erabiltzeko moduan daude. Hau da, A hitzun elebakarrak eta A/B edo B/A motako elebidunak, besterik ez.

Elebidunen aldetik B hizkuntzaren erabilera gertaera estokastiko gisa definitu dugu. Azken buru, ez dugu ezagutzen alde aurretik zein den elebidunen portaera linguistikoa. Biztanle bakoitza eta guztien artean momentu jakinetan hizkuntza harremanen bat gerta daitekeela suposatzen badugu, orduan B hizkuntzaren erabilera maila elebidunen proportzioaren funtzio zuzena izaten da. Hizkuntzaren erabilera ikuspegitik, egoera horri egoera isotropikoa esaten diogu. Edozein bi biztanleren artean hitzezko harremana gertagarria dela onartzen badugu, B hizkuntza soilik erabili daiteke solaskide biak elebidunak direnean, eta erabilera hori, besteak beste, beraien baitan dago. Hori azaldu izan digu maisuki Txillardegik Soziolinguistika Matematikoa liburuan.

Edozelan ere, abiaburua egoera isotropikoaren azterketan datza.

## ISOTROPIA / ANISOTROPIA

Arestian esan dugunez, B hizkuntzaren ageriko erabilera zorizko gertaeratzat jo dugu. Nonnahi eta noiznahi ager daitekeen jazoera dela esan nahi dugu. Gure eredu eredu estokastikoa dela esaterakoan, B hizkuntzaren erabilera

buruzko aurreiritzi guztiak baztertzen ditugu, zuzenak zein okerrak, ez dugu aurreiritzi bakar bat onartzen. Esaten dugu, B hizkuntzaren erabilera, elebidunak dauden bitartean, gertaera probablea dela, besterik ez. Orokorrean, kontrako frogatu ezean, gizartea linguistikoki isotropikoa da; B hizkuntzaren erabilera, printzipioz, elebidunen proportzioaren funtzio zuzena da.

Honaino ez dago arazorik. Baina zer gertatzen da  $m_b$  faktorea bat baino handiagoa gertatuko balitzaigu? Aurrenik eta behin, esan dezagun matematikoki hori onartezina dela. ( $m_b$ ) faktorearen balioa enpirikoki bat baino handiagoa gertatzekotan, eta gerta daiteke, leialtasunaren muga gainditu egiten da eta ondorioz, ezinbestean, anisotropia dagoela onartu beharrean gaude. Kasu horietan elebidunek B hizkuntzaren erabileraren muga estatistikoa gainditu egiten dute eta giza talde hori anisotropikoa dela agerian utzi. Aurrerantzean helduko diogu arazo horri, momentuz zehatz ditzagun zeintzuk diren aipatu B hizkuntzaren erabileraren muga estatistikoak.

$$0 \leq P_B \leq (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

Erabileraren behe-goiko mugak ezaguturik, eredu matematikoari jarraiki, ziurtasun osoz eta irmotasunez ondorengoa esan dezakegu: HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAREN ERABILERA MAILA ELEBIDUNEN PROPORZIOA BAINO TXIKIAGO DA BETI. Kasurik onenean, erabilera erabateko leialtasunaz eta bikoteka gauzatzen denean, hizkuntza gutxiagotuaren goren mailako erabilera tasa elebidunen proportzioaren berredura besterik ez litzateke izango. Eta hori, berriz diogu, erabileraren izugarritzko maila jasoa izango litzateke, ia ezinezkoa. Elebidunen proportzioa eta erabileraren proportzioa bat etor daitekeela pentsatzea ezjakintasun gorria da.

### HIZKUNTZAREKIKO LEIALTASUNA

Txillardegiren eredu matematikoan, deitutako hizkuntzarekiko leialtasuna ( $m_b$ ) zentzu hertsian pisu estatistikoa bat besterik ez da. Formalizazio prozesuan ezinbesteko ondorio gisa ulertu beharra dago. B hizkuntzaren erabilera elebidunei eta soilik horiei dagokie,  $m_b$  faktorea gure erudian aintzat hartuko ez bagenu elebidunen B hizkuntzaren erabilera, posible den guztietan, *de facto* gertaera segurua dela adieraziko genuke. Eta hori, begi bistakoa da, ez da horrela. Eredu matematikoaren koherentziak eskatzen du ( $m_b$ ) faktorea aintzat hartzea. Beste kontu bat da, ostera, nola definitzen dugun sustantiboki hizkuntzarekiko leialtasuna. Operazionalki, eredu matematiko honen testuinguruan, berriz, honela definienezake: zehaztutako giza talde jakineko elebidunen artean B hizkuntza erabiltzeko batenaz besteko joera.

Ezin nahas daitezke kalean (orokorrean) behatutako hizkuntzaren erabilera eta elebidunen artean (soilik haien artean) izan daitekeen erabilera, guretzat leialtasuna dena. Oso joera arrunta da behatutako erabilera eta hizkuntzarekiko leialtasuna nahastea. Ez da zuzena. Behatutako hizkuntzaren erabilerak soilik zeharka adieraz baitezake hizkuntzarekiko atxikimendua.

«Hiztunen artean, euskaldunak zein erdaldunak izanda, diferentziarik ez dagoela suposatzen dugu. Hau da, pertsona normalak direla eta ez diotela beraien bizimodu arruntari uzten arrazoi linguistikoengatik»

## ANISOTROPIA KOEFIZIENTEA

«Hori horrela, euskara pertsona gutxiren batzuen hizkuntza den heinean, erabilera mugatua izan behar du halabeharrez.

Muga hori enpirikoki kalkula daiteke.

Hizkuntza egoera isotropikoan eta euskaldunen arteko harreman posible guztietan euskaraz egingo balute erraza da erabileraren goren muga zein den kalkulatzeko.

Hala ere, Euskal Herriko udalerrri gehienetan muga hori gaintitzen dela behatu izan da»

Euskaldunak, hiztunen artean, gutxiengoa direla gauza jakina da, gutxiengo izaki, zein neurritaraino jaso dezakete euskararen erabilera gizarte mailan? Ahozko erabilera publikoari gagozkiolarik, euskararen erabilerak mugarik ba ote du? Printzipioz, eta hori da Txillardegik egin zuena, hiztunen artean, euskaldunak zein erdaldunak izanda, diferentziarik ez dagoela suposatzen dugu. Hau da, pertsona normalak direla eta ez diotela beraien bizimodu arruntari uzten arrazoi linguistikoengatik. Beste era batera, euskaraz edo erdaraz egiteagatik edo ez egiteagatik, salbuespenak salbuespen, pertsona arrunt orok egiten duena da, bizi, harremanetan sartu, komunikatu alegia.

Hori horrela, euskara pertsona gutxiren batzuen hizkuntza den heinean, erabilera mugatua izan behar du halabeharrez. Muga hori enpirikoki kalkula daiteke. Hizkuntza egoera isotropikoan eta euskaldunen arteko harreman posible guztietan euskaraz egingo balute, ikusi dugunez, erraza da erabileraren goren muga zein den kalkulatzeko. Hala ere, Euskal Herriko udalerrri gehienetan muga hori gaintitzen dela behatu izan da.

Gogora dezagun hasieran aipatutako formula:

$$P_B = W_x m_B \left( W_2 \left( \frac{e_x}{W_x} \right)^2 + W_3 \left( \frac{e_x}{W_x} \right)^3 + W_4 \left( \frac{e_x}{W_x} \right)^4 \right)$$

Demagun Euskal Herriko hizkuntza egoera, euskara eta erdara (frantsesa zein gaztelera) hizkuntzen arteko ukipen egoera. Horrelakoetan euskararen erabilera, B hizkuntza, elebidunen esku dago.

Elebidunen pisu demolinguistikoa ( $W_x$ ) eta elebidunen proportzioa ( $e_x$ ) balio bera izango balira,  $W_2 + W_3 + W_4 = 1$  izanik, orduan:

$$P_B = e_x m_B$$


$$m_B = \frac{P_B}{e_x}$$

Horiek horrela, behatutako erabilera ( $P_B$ ) eta euskaldunen proportzioaren ( $e_x$ ) arteko erlazioak euskararekiko leialtasuna ( $m_B$ ) adierazten ote du? Gure ustez ez, kasu honetan ANISOTROPIA KOEFIZIENTEAREN aurrean gaude. Beste era batera, esan genezake Txepetxek proposaturiko trinkoketaren adierazle enpirikoa dela

Hau da, behatutako erabilera eta elebidunen proportzioa bat baletoz hizkuntza bateko eta besteko hiztunak bi talde berezietan banatuta bizi direla pentsatu beharko genuke.

### ANISOTROPIA ETA GIZARTERATZE-TASA

Txillardegiri berari jarraituz (BAT aldizkaria, 3/4. alea 67. or) honela garatuko genukeen anisotropiaren neurketarako eredu:



«Proportzioak biztanleria orokorrean euskaldunek daukaten pisua adierazten digu. Horrela, euskaldunen proportzioa txikia izateak ez du adierazten euskaldun gutxi edo asko direnik, euskaldun/erdaldun arteko erlazioa baizik»

1. Irudia: eredu anisotropikoa,  $H_A$  eta  $H_X$  azpimultzoek bi hizkuntza sare desberdinak adierazten dituzte.

Egindako apimultzoen banaketa horretan hizkuntza harreman sare bakoitzean leudekeen hiztunen proportzioak horrela kalkulatu genitzake:

$$u_A = \frac{N(1-g)e_A}{N(1-g)e_A + Ne_Ag + Ne_X} = \frac{(1-g)e_A}{(1-g)e_A + g e_A + e_X} = (1-g)e_A$$

$$u_X = \frac{Ne_Ag + Ne_X}{N(1-g)e_A + Ne_Ag + Ne_X} = \frac{g e_A + e_X}{(1-g)e_A + g e_A + e_X} = g e_A + e_X$$

$w_A$  eta  $w_X$  azpimultzo bakoitzaren pisu estatistikoak dira beraz.

Aipatuaz gaindi, ondorengoak betetzen dira:

$$H_A + H_X = N$$

$$Ne_A(1-g) + Ne_Ag + Ne_X = N$$

Hizkuntza sare bakoitzari dagozkion proportzioak kalkulatu:

«Proporzioak ez digu  
"banaketa geografikoaz"  
deus ere adierazten, ez  
dakigu euskaldunak  
lurralde jakinean nola  
banatzen diren. Begi  
bistakoa da,  
elkarrengandik hurbil  
egonez gero, euskaraz  
egitea probableagoa dela  
elkarrengandik urrun  
egonda baino»

$$e_{gA} = \frac{Nge_A}{Nge_A + Ne_X} = \frac{ge_A}{ge_A + e_X}$$


$$e_{gX} = \frac{Nge_X}{Nge_A + Ne_X} = \frac{e_X}{ge_A + e_X}$$

Lehenengo irudian adierazitako azpimultzoen azterketari lotzen bagatzaizkio eta  $H_A$  azpimultzoa momentuz aparte uzten badugu,  $H_X$  azpimultzoan eza-  
gutza tasak honela kalkulatu genituzke:

$$e_{gA} = \frac{Nge_A}{Nge_A + Ne_X} = \frac{ge_A}{ge_A + e_X} = \frac{ge_A}{w_X}$$

$$e_{gX} = \frac{Ne_X}{Nge_A + Ne_X} = \frac{e_X}{ge_A + e_X} = \frac{e_X}{w_X}$$

Azpimultzo hori, ezagutza tasen arabera irudian adierazita:



$eg_A$ : gizarteratutako ezagutza tasa

$eg_X$ : elebidunen ezagutza tasa

Horiek horrela, B hizkuntzaren erabilera egoera anisotropikoan  $eg_X$  ezagutza tasa,  $m_B$  hizkuntzarekiko leialtasuna eta  $w_X$  azpimultzoaren pisuaren arabera izango da. Horiek guztiak formula orokorrera ekarrita:

$$P_B = w_X m_B \left[ w_2 \left( \frac{e_X}{w_X} \right)^2 + w_3 \left( \frac{e_X}{w_X} \right)^3 + w_4 \left( \frac{e_X}{w_X} \right)^4 \right]$$

Gizarteratze-tasa berriz, honako hau da:

$$g = \frac{w_X - e_X}{1 - e_X}$$

Gizarteratze-tasa ezagutzeko, aurrenik  $w_X$  kalkulatu behar dugu eta, ondorioz, hurrengo ekuazioa ebatzi:

$$P_B w_X^3 - m_B w_2 e_X^2 w_X^2 - m_B w_3 e_X^3 w_X - m_B w_4 e_X^4 = 0$$

Ekuazio hori, oro har, honela idatz dezakegu:

$$x^3 + mx^2 + nx + p = 0$$

non  $m$ ,  $n$  eta  $p$  koefizienteak hurrenez hurren ondorengoak diren:

$$m = -\frac{m_B}{P_B} w_2 e_X^2 \quad n = -\frac{m_B}{P_B} w_3 e_X^3 \quad p = -\frac{m_B}{P_B} w_4 e_X^4$$

Ebazpideari jarraituz, Cardanoren formula erabiliko dugu eta horretarako lehenik, ondorengo aldagai-truke egin:

$$x = y - \frac{m}{3}$$

Behin transformaturik, honako hau dugu:

$$y^3 + y \left( n - \frac{m^2}{3} \right) + \left( \frac{2m^3}{27} - \frac{mn}{3} + p \right) = 0$$

beste era batera idatzita,

$$y^3 + py + q = 0$$

eta, orain, Cardanoren formula,

$$y = \sqrt[3]{-\frac{q}{2} + \sqrt{\frac{q^2}{4} + \frac{p^3}{27}}} + \sqrt[3]{-\frac{q}{2} - \sqrt{\frac{q^2}{4} + \frac{p^3}{27}}}$$

gero,  $x = y - \frac{m}{3} = w_X$  ebatziz,  $g = \frac{w_X - e_X}{1 - e_X}$  gizarteratze-tasa jakin

dezakegu.

Gizarteratze-tasa Txillardegiren eredu matematikoan nola kalkulatu den eta zeri dagokion argi dago. Baina zer da gizarteratze-tasa? Txillardegiren hitzetan euskaldunen hizkuntza harremanen sareetara bildutako erdaldunen proportzioa da. Neurri batean guri Txepetxen trinkoketa dakarkigu gogora, anisotropiaren adierazlea izan daiteke. Euskaldunok zein neurritan bizi diren beraien artean eta zenbat erdaldun erakartzen duten haien hizkuntza harremanen sareetara.

«Hirugarren faktorea bakarra baino faktore multzo gisa ulertu beharko genuke. Hizkuntzarekiko leialtasuna edo atxikimendua, printzipioz, norbanakoari badagokio ere, aldagai askoren araberakoa da. Aldagai horiek izaera psikologiko, linguistiko eta sozialekoa da»



**«Euskaldunen pisu demolinguistikoa (%22,5) txikia dela jakina da, bederatzi biztanletik bi dira euskaldunak. Horrela, biztanleriako bederatziren bi horrek euskararen kaleko erabilera % 13raino eramaten du»**

## EUSKARAREN KALEKO ERABILERAREN EBALUAKETA

Kaleko euskararen erabilera, orokorrean, azkeneko urteotan (89-97) areagotu dela dudarik ez dago. Azkeneko neurketaldiko emaitzak (1997) BAT aldi-zkariko ale honetan bertan ikus ditzake irakurleak xehe-xehe eta zabal-zabal. Datuez haruntzago joanik zenbait hausnarketa egin nahi dugu. Euskararen ageriko erabilera -behagarria-, edo erabilera publikoa, oro har, hiru faktoreen menpekoa dela esan dezakegu.

1. Euskaldunen kopurua.
2. Euskaldunen banaketa.
3. Euskararekiko leialtasuna, atxikimendua...

Euskaldunen kopurua oso handia bada ere -Bilbon eta Donostian 50.000 baino gehiago bizi dira- erdaldunen multzo handiak irensten du eta haien eragina ez da ia apenas somatzen. Horregatik erabiltzen dugu estatistiko bat, proportzioa hain zuzen ere. Proportzioak biztanleria orokorrean euskaldunek daukaten pisua adierazten digu. Horrela, euskaldunen proportzioa txikia izateak ez du adierazten euskaldun gutxi edo asko direnik, euskaldun/erdaldun arteko erlazioa baizik.

Bigarren faktorea, euskaldunen banaketa, neurri batean, proportzioan bertan islaturik dago. Hala ere, proportzioak ez digu «banaketa geografikoaz» deus ere adierazten, ez dakigu euskaldunak lurralde jakinean nola banatzen diren. Begi bistakoa da, elkarrengandik hurbil egonez gero, euskaraz egitea probabileagoa dela elkarrengandik urrun egonda baino.

Hirugarren faktorea bakarra baino faktore multzo gisa ulertu beharko genuke. Hizkuntzarekiko leialtasuna edo atxikimendua, printzipioz, norbanakoari badagokio ere, aldagai askoren araberakoa da. Aldagai horiek izatera psikologiko (jarrerak adibidez), linguistiko (ezagutza maila, besteak beste) eta sozialekoa (lanbidea eta beste asko) da.

Hiru faktore horien artean lehenengo biak, euskaldunen kopurua eta beraien banaketa, objektiboak dira, behagarriak eta neurgarriak alegia. Egia da, bi faktore horiek soilik, ez dutela guztiz azaltzen euskararen erabilera, berau ulertzeko hirugarren faktorea ezinbestekoa dela. Hala ere, faktore objektiboek erabilera gertatzeko oinarri-oinarrizko baldintzak zehazten dituzte. Euskararen kaleko erabilera neurtzerik badugu, eta hori da EKBk zuzen eta egoki egiten duena, lehenengo bi faktoreen ekarpena zein den jakin dezakegu eta, inferentziaz, hirugarren faktorearen eragina zein nolako den ere. Honetan, erabakigarria da Txillardegiren ekarpena, bere bitartez erabilerearen muga teorikoak (isotropia egoeran) zeintzuk diren jakin dezakegu. Bide beretik hizkuntzarekiko leialtasuna zein nolakoa den jakiterik badago eta, azkenik, hizkuntza egoera anisotropikoan, emandako leialtasuna maila jakinerako gizaterakuntza-tasa zenbatekoa den kalkula dezakegu.

Euskal Herriko egoerari lotuz, euskaldunen pisu demolinguistikoa (%22,5) txikia dela jakina da, bederatzi biztanletik bi dira euskaldunak, gutxi gora-

behera. Horrela, biztanleriako bederatziren bi horrek euskararen kaleko erabilera % 13raino eramaten du. Hizkuntza egoera isotropiko batean, euskaldunek euskaraz egiteko aukera guztietan euskaraz egingo balute, zein erabilera maila espero zitekeen? Ondorengo<sup>2</sup>:

$$P_B = (0,5488 \cdot 0,255^2 + 0,2862 \cdot 0,255^3 + 0,165 \cdot 0,255^4) \cdot 100 = \% 3,15$$

Ehuneko hiru koma hamabost da, hain zuzen ere, egoera isotropiko batean espero daitekeen erabilera mailarik altuena. Zer gertatzen da? Hizkuntza egoera ez dela isotropikoa, anisotropikoa baizik. Euskaldunak, euren artean, trinkoago bizi direla, hizkuntza hartu emanak harreman endogamikoak direla, laburrago euskaldunak erdaldunekin baino euren artean bizi direla.

Hurrengo formulari itxaron daitekeen erabilera EAEko 1996ko datuekin kalkulatu dugu.

$$P_B = (0,5488 \cdot 0,3088^2 + 0,2862 \cdot 0,3088^3 + 0,165 \cdot 0,3088^4) \cdot 100 = \% 6,22$$

Gogorarazi beharra dago erabilera tasa horrek adierazten duela biztanle guztien arteko zorizko hizkuntza harreman posibleetan euskaldunek euren artean beti euskaraz egiten dutela. Hau da,  $m_B = 1$  egin dugu.

Ondorengo taulan EKBERen 1989, 93 eta 97 urteetako neurketaldien datuak eta EUSTATetik (1991 zentsukoak) jasotakoak erabili ditugu. 1989, 1993 eta 1997ko erabilera datuez (EKB 89, EKB 93, EKB 97) gaindi, udalerrri bakoitzean -egoera isotropikoan- espero zitekeen goren mailako erabilera (KALEAN) eta euskararen etxeko ohiko erabilera maila euskaldun kopuruarekiko (ETXEAN) bildu ditugu.

2) Atal honetan 1991ko datuak erabili ditugu.

## 1. Taula: Euskararen kaleko erabilera

UDALERRIA	EKB89	EKB93	EKB97	KALEAN	ETXEAN
Abadino	---	13,54	18,66	15,33	71,23
Abanto Zierbena	---	18,83	0,00	0,26	3,04
Aduna	---	---	89,57	90,59	99,3
Agoitz	---	2,85	9,04	0,39	---
Ahetze	---	---	22,92	---	---
Ahurti/Urt	---	---	0,00	0,00	---
Aia	---	---	87,61	84,42	96,25
Aiegi	---	---	1,10	---	---
Alegia	---	---	86,46	0,00	---
Alonsotegi	---	---	0,00	0,21	5,38
Altsasu	---	5,31	6,52	1,07	---
Ameskoa - Behekoa	---	---	2,33	0,00	---
Amurrio	---	4,29	8,31	0,84	4,63
Andoain	14,2	14,48	23,56	14,57	58,69
Angelu	---	---	1,27	---	---
Antsoain	0,9	1,71	0,35	0,20	---
Arantza	---	---	86,83	---	---
Arantzazu	---	---	52,78	72,69	87,25
Arbona	---	---	5,56	---	---
Areso	---	---	84,71	---	---
Aretxabaleta	---	47,06	61,69	27,69	63,76
Arrangoitze	---	---	0,00	---	---
Arrasate	19,3	22,99	30,72	17,59	52,76
Arrigorriaga	---	---	11,94	1,96	13,8
Atarrabia	---	4,46	6,83	0,39	---
Azkaine	---	---	3,31	---	---
Azkoien*	---	---	0,00	---	---
Azkoitia	72,5	72,89	73,64	51,21	87,4
Azpeitia	73,4	78,25	78,15	70,90	89,61
Baigorri	---	---	38,16	---	---
Baiona	2,6	4,59	2,46	---	---
Balmaseda	---	0,43	0,00	0,10	2,27
Barakaldo	0,5	0,52	0,27	0,10	3,29
Barañain	2	2,52	1,68	0,22	---
Bardoze	---	---	3,49	---	---
Basauri	0,9	1,36	0,97	0,67	15,65
Basusarri	---	---	9,20	0,49	---
Baztan	---	31,12	36,70	55,29	---
Beasain	20,1	25,67	38,95	19,32	54,62
Belauntza	71	73,11	86,72	66,37	89,16
Beranturi*	---	---	0,00	0,00	---
Bergara	35,7	40,41	35,31	35,60	64,9
Bermeo	42,9	47,12	48,09	51,14	73,7
Bernedo	---	---	1,75	0,02	0
Berriozar	0,9	2,04	1,52	0,20	---
Beskoitze	---	---	6,40	0,23	---
Betelu	---	---	57,63	25,52	---
Bidarte	---	---	1,63	0,01	---
Bidaxune	---	---	36,36	8,92	---
Bilbo	2,5	4,33	4,60	0,54	16,27
Billabona	24,6	30,38	39,79	34,07	75,19
Bokale	---	---	0,14	0,00	---
Burlata	---	1,97	0,37	0,30	---
Dima	---	---	67,65	77,36	93,94

Donamartiri-Untz*	---	---	0,00	---	---
Donapaleu	43,6	15,56	29,05	---	---
Doneztebe	---	---	36,60	---	---
Donibane Garazi	---	13,6	12,01	---	---
Donibane Lohizune	4,2	7,19	1,08	---	---
Donostia	10,3	8,53	14,01	4,78	32,32
Durango	10,6	6,29	15,31	10,17	47,94
Eguesibar	---	---	1,97	0,00	---
Eibar	14,3	14,53	16,45	15,58	44,8
Elgeta	---	---	57,00	67,62	88,9
Elgoibar	21	25,78	43,99	24,04	65,78
Elorrio	---	22,22	30,51	20,20	67,88
Erandio	1	2,64	1,74	0,95	28,9
Ermua	6,5	4,28	9,85	1,45	37,61
Errenteria	7,9	9,24	9,12	3,77	44,74
Erroibar	---	---	20,17	0,00	---
Eskoriatza	---	---	46,52	19,54	70,21
Eslaba*	---	---	0,00	---	---
Esteribar	---	---	0,73	0,00	---
Etxalar	---	54,93	66,11	77,06	---
Etxauri	---	---	8,70	---	---
Etxebarri	---	0,48	5,95	0,40	16,76
Ezpeleta	---	---	35,47	---	---
Galdakao	6,9	21,31	12,47	5,67	42,21
Garai	---	---	26,59	70,06	92,38
Gasteiz	2	2,54	2,88	0,32	13,36
Gernika-Lumo	34,8	34,35	42,87	35,30	64,64
Gesaltza*			0,00		
Getari			13,33	0,00	
Getxo	2,8	3,51	2,22	1,21	15,61
Gueñes	---	0	0,00	0,14	3,83
Hazparne	---		18,88		
Hendaia	11,2	6,92	7,80		
Hernani	21,3	23,97	26,83	17,05	57,7
Hiriburu	---		6,76		
Hondarribia	28,9	18,5	34,13	26,09	55,48
Irun	3,5	6,93	5,51	3,70	31,99
Iruñea	1,3	1,81	2,86	0,20	
Itsasu	---		29,63		
Kanbo			20,80	0,00	
Kanpezu	---		6,56	0,25	7,89
Korella	---	0	0,00	0,00	
Lakuntza	---	41,09	19,27	36,17	
Larresoro	---		25,00		
Larzabale*	---		19,40		
Lasarte-Oria	8,8	10,37	8,78	6,92	54,52
Laudio	2,5	2,81	3,56	1,10	11,89
Ledia*			0,00		
Legazpi	20,1	25,49	26,82	18,20	61,99
Lehentze	---		0,00		
Leioa	---	4,69	2,38	1,42	19,94
Lekeitio	---	70,9	77,89	69,82	90,46
Lezo	43,8	31,02	53,64	11,15	68,49
Lizarra	8,9	15,98	3,63	0,34	

Losarkos-Urantzia*			0,00		
Luzaide	---		58,71		
Mainueta	---		2,54	0,10	0
Maule	10,8	6,88	14,29		
Miarritze	---	1,8	0,23		
Milafranga	---		0,00		
Milagro*			0,00		
Miranda-Arga*			0,00		
Mugerre			33,33	0,00	
Mungia	16,9	16,19	18,53	26,59	59,2
Muskiz	---	2,25	2,44	0,27	3,72
Obanos	---		0,62		
Oiartzun	51	56,08	63,74	49,98	79,69
Olazti	---		4,55		
Ondarroa	70,9	79,08	77,16	53,84	85,51
Oñati	39,8	73,3	56,44	53,62	72,48
Orbaitzeta	---		23,08		
Ordizia	---	23,38	36,71	20,55	50,64
Otsagi	---		9,13	0,48	
Otxandio	34,4	34,39	43,04	52,17	74,09
Pasaia	12,1	14,97	20,84	4,60	41,46
Portugalete	0,6	0,3	2,19	0,22	6,11
Santurtzi	0,8	1,24	0,72	0,17	4,9
Sara	---		27,03		
Senpere	---		23,48		
Sestao	0,5	0,37	0,20	0,15	2,66
Sohüta	---		0,00		
Sopela	---	4,23	5,33	5,13	27,7
Sukarrieta	---	29,69	14,72	53,04	75,93
Tafalla	---	4,46	5,56	0,08	
Tiebas-Muruarteder*			0,00		
Tolosa	23,9	40,27	37,25	25,86	54,56
Trapagaran	4,8	0,93	1,09	0,35	3,34
Tutera	0,4	0,73	1,34	0,00	
Uharte-Arakil	---		20,15		
Urduliz	---		16,67	0,06	922,09
Urketa*			0,00		
Urnieta	---		20,45	15,98	73,79
Urretxu	---	20,5	31,58	15,41	50,48
Urruña	---		5,62		
Urtuella	---		0,92	0,20	2,24
Usurbil	---	64,19	68,29	35,32	79,53
Uztaritze	---		30,00		
Zalla	---		0,00		2,51
Zarautz	38,5	43,74	54,99	40,83	70,33
Ziburu	---	6,94	2,21		
Ziordia	---		1,65		
Zizur Nagusia	---	1,31	1,11	0,35	
Zizurkil	---		43,30	31,93	74,67
Zornotza	41,7	21,12	25,68	17,18	62,14
Zumaia	---	44,08	61,38	37,70	69,94
Zumarraga	12,1	14,99	20,30	9,65	-45,1

EKBren erabilera neurketek, oro har, euskararen kaleko erabileraren bilakera hazkorra erakusten dute. Hori horrela izanik, behaketa sozialetatik abiatuta zaila da euskaldunen hizkuntza-leialtasunaz hitz egitea, gizabanakoa eta gizartearena dimentsio desberdinak baitira. Behatu eta neurtutako erabilera, izatez, soziala da, gizarteari dagokio. Behatutakoaren arabera, zalantza izipirik ez dago Euskal Herriko gizartea linguistikoki anisotropikoa dela. Hau da, euskaldunak haien artean sartzen dira harremanetan, maiztasunaren ikuspegitik itxaron daitekeena baino gehiago. Txillardegiren eredu matematikoari esker zehaztasunez ezagut dezakegu **euskaldunen hizkuntzaren erabilera portaera soziala gisa**. Hala ere, metodologia horren bitartez norbanakoaren portaera zein nolakoa den nekez ezagut genezake. gizartea anisotropikoa dela jakinik, euskaldunaren (singularrean) hizkuntza leialtasunaz hitz egitea espekulazioa besterik ez da.

Euskararen erabilera soziala -kaleko erabileraz ari gara-, handia dela, hori ukazina da. Baina, zergatik da handia? Erantzunik sinpleena ondorengoa da: euskaldunak, euskaldun gehienak behintzat, elkarren artean bizi direlako. Itxuraz, elkarren artean bizi diren euskaldun gehienek, euren artean, euskaraz egiten dute, behinik behin EKBk hori behatu eta neurtu du. Zergatik egiten dute euskaraz? Erantzun bat baino gehiago eman dakioke galdera horri: ohituragatik, euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direlako, solaskideak euskaraz hitz egiten diolako, kontzientziagatik... Horiek guztiak, hizkuntza leialtasuna izendatzen badugu ez legoke arazorik. Alabaina, entzule eta irakurle gehienek *euskararekiko leialtasuna edo atxikimendua* euskararen aldeko portaera konsziente gisa ulertzen dute. Dударik ez dago izaera psikologikoko aldagai hori bade-la izan. Hizkuntzen arteko ukipen egoera honetan, gutariko bakoitzak badu bere baitan, neurri batean edo bestean, halako *hizkuntza kontzientzia* bere hizkuntza portaera bideratzeko. Baina kontzientzia horrek ez du guztiz zehazten elebidunak une orotan erabili behar duen hizkuntza. Euskaraz egiteko beti edo gehienetan hitz egin *nahi* izateak ez dakar, besterik ezean, euskaraz beti edo gehienetan jardutea.

Gizarte mailako baldintza objektiboak, euskararen egoera txarrean behintzat, askoz erabakiorragoak dira norbanakoaren *kontzientzia* edo *nahia* baino. Hori da, bederen, erabileraren neurketetatik erator daitekeen inferentzietariko bat. Euskara gehiago eta intentsitate handiagoz erabiltzen da udalerrri euskaldunetan erdaldunetan baino, horrela antzematen baita anisotropia koefizienteetan. **Baina horrek ez du adierazten udalerrri euskaldunetako elebidunek euskararekiko leialagoak direnik gainontzekoak baino.**

Oro har, euskaraz egiteko zenbat eta aukera gehiago dagoenean orduan eta euskara gehiago erabiltzen da. Hori da, gure ustez, EKBren neurketetan beha daitekeen joera nagusia.

Adibidez, Azpeitian 11.565 euskaldunetatik %91,11k 1996ko udal-errodan esan zuen euskara zeukatela etxeko-ohiko hizkuntza, EKBk 1997an, kalean %78,15eko erabilera neurtu zuen. aurreko neurketetan, 1991ko zentsuan, Azpeitiko euskaldunen %89,61ek zeukan euskara etxeko-ohiko hizkuntza eta EKBk 1993an, kalerako erabilera %78,25ekoa zela neurtu zuen. Ondorioz, Az-

---

